

berri ziren hainbat liburu eta diskorekin. Hainbat idazlek beren lanak aurkeztu zituzten.

Uztaila

1 • Jesus Mari Alkain hil zen

Jesus Mari Alkain hil zen, frankismo osteko Donostiako lehen alkatea, 79 urte zituela.

11 • Antzerki Feria

Uztailaren 11n hasi eta 14a bitartean, hirugarren Antzerki Feria izan zen Donostian.

24 • Olaia Kastresana altzatarra hil zen

Torrevellan hil zen (Herri Katalanak), lehergailu bat eskuetan zartatuta, Olaia Kastresana us-tezkoetakidea. Olaia Kastresanak 22 urte besterik ez zituen. Albistea Euskal Herrira iritsi bezain pronto, protesta eta mobilizazio ugari egin ziren.

29 • Omenaldia Olaia Kastresanari

Olaia Kastresanaren gorpua Errenteriara iristean milaka lagunek ongi-etorria egin zioten.

Abuztua

4 • Manifestazioa konponbide demokratikoaren alde

Batasunak *Konponbide demokratikoa Euskal Herriarentzat* lelopean manifestazioa egin zuen Donostiako kaleetan. Milaka lagunek parte hartu zuten.

8 • Urrutiko lurretatik barrena bizikletaz

Carlos Mañero donostiarrak Pekindik Donostiarako bidea bizikletaz egin zuen. 2000ko urrian abiatu zen Txinako hiri-burutik, eta 10 hilabete ondoren iritsi zen Alderdi Ederre-ra.

11 • Jalabert garaile klasikoan

Laurent Jalabert txirrindulariak irabazi zuen aurtengo Donostia-Donostia klasikoak.

15 • Espainiako banderaren aurkako manifestazioa

Batasunak *Herri bat gara. Geurea ikurrina* lelopean, kontzentrazioa egin zuen Aste Nagusian Espainiako banderak festetan duen presentzia salatzeke. Hurrengo egunean Segik deitua zuen manifestazioa debekatu zuen Herrizaingo Sailak.

15 • Ertzain baten aurkako erasoa

Lehergailu batek eztanda egin zuen ertzain baten etxe aurrean, Donostiako Gros auzoan. Kalte materialak izan ziren.

21 • Maritxu Erauntzetamurgil hil zen

Maritxu Erauntzetamurgil hil zen eta haren iloba larri zauritu, jostailuzko auto elektriko baten eztandaren ondorioz.

31 • 1813ko abuztuaren 31 gogoan

Ekitaldi ugari izan ziren Alde

Zaharreko kaleetan, 1813an Napoleonen kontrako armadak hiria erre zueneko eguna gogoratzeko.

Iraila

1 • Sagardoa eta euskara

Sagardo Egunaren bitartez, Euskal Jaiak hasi zituzten.

9 • Kontxa, Castrorentzat

Orio faborito izan arren, Castrok irabazi zuen, 89 ehuneko aldearekin. Polemika handia sortu zen.

26 • Euskararen aldeko giza katea

Europako Hizkuntzen Egunaren harira, Batzen taldeak giza katea osatu zuen.

Urria

7 • 'Euskadi' txalupa, Kariberantz

Xabier Agote eta Urko Mendi-buru, *Euskadi* txalupan, Karibeko Bardos uhartera abiatu ziren urriaren 7an, Tenerifetik, Munduko Estropadarik Gogorrena kirol proban Atlantikoa zeharkatzera.

11 • Krisia Donostiako Udalean

Donostiako alkate Odon Elorzak PPko zinegotziak kargu-betzeko dekretua eskatu bazuen ere, tirabirez eta tentsioz beteriko aste bat izan ondoren, bi alderdiek gobernu akordioari eustea hitzartu zuten.

SIRTA

GAZTEENTZAKO JANTZIDENDA

Hondarribi, 19 ☎ 943 43 13 55 DONOSTIA

Arbelaitz

Peñaflorida, 5 - ☎ 943 42 70 68
Hernani, 21 - ☎ 943 43 02 10
Hernani, 29 - ☎ 943 42 11 65
Txurruka, 7 - ☎ 943 42 19 44

DONOSTIA

Fatima Ansola

FATIMA ANSOLA

Artzai Onaren plaza, 1.
San Mertzial, 33.

DONOSTIA


Urbieta k., 23 • ☎ / Faxe: 943 42 16 05

Donostia

IZKO

haurdunaldikoa

Laroge



c e r á m i c a s

ERAKUSKETA
ETA BULEGOAK

San Martin, 4
Tel.: 943 429 395
Faxe: 943 425 632
E-mail: laroge@infonegocio.com
20005 DONOSTIA

ERAKUSKETA
ETA BULEGOAK

Rekalde auzoa
Tel.: 943 373 105
Faxe: 943 370 183
20009 DONOSTIA

BILTEGIA

Rekalde auzoa
Tel.: 943 373 040
Faxe: 943 362 322
20009 DONOSTIA



Jende ugari Sagardo Egunean

Irailako lehen egunean antolatutako Sagardo Egunarekin hasi ziren Euskal Jaiak. Sagardoa dastatuz eta dantzaz, jendez gainezka egon zen Konstituzio plaza eta, guztira, hamar mila botila sagardo edan ziren.